

Soziolinguistika i(ra)kastearen plazeraz. Juan Carlos Etxegoien *Xamar*-ekin elkarrizketan¹

Belen Uranga

Soziolinguistika Klusterra

b.uranga@soziolinguistika.org

Sarrera-data: 2011-06-27 | Onartze-data: 2011-07-30

Laburpena. Juan Carlos Etxegoien Xamarrek soziolinguistikaren dibulgazioan ahalegin berezia egin du, argitara eman dituen liburuen bitartez. Soziolinguistika Klusterrak antolatutako IV jardunaldian egindako elkarrizketa honetan, lan horren beharraz hitz egin du, ez berez gai zientifikoaren ikuspegitik aparteko interesa duelako, baizik eta euskaraz bizitzeko dauden zailtasunak ulertzeko ezinbestekoa delako soziolinguistikak aztertzen dituen gaiak ulertzea. Modu horretan soilik ahalbidetuko da irtenbideak bilatzea. • *Hitz-gakoak:* soziolinguistika, dibulgazioa, heziketa, identitatea, hiztun-komunitatea.

Abstract. On the pleasure of learning/teaching sociolinguistics. In an interview given by Juan Carlos Etxegoien Xamar. Juan Carlos Etxegoien aka Xamar has made a special effort to popularise sociolinguistics through the books he has published. In this interview given during the 4th conference organised by the Sociolinguistics Cluster, he speaks about the need for this work, not because it is of special interest from the perspective of a scientific discipline in itself, but because it is essential for understanding the subjects examined by sociolinguistics if one is to understand the difficulties existing in living in Basque. Only in this way will it be possible to find solutions. • *Key Words:* sociolinguistics, popularisation, education, identity, speech community.

SARRERA

I
Elkarrizketa hau Soziolinguistika Klusterraren aspaldiko kezka bati erantzunez abiatu dugu; nazio artean eta Euskal Herrian egiten den soziolinguistika-arloko lanak zabaltzeko dauden zailtasunez hitz egin nahi dugu. Helburu horrekin gonbidatu dugu Juan Carlos Etxegoien *Xamar*, nafarra. Bera, haur-irakaslea da, eta, aspaldian, irakasleen trebakuntzan dihardu, batez ere, Zenbat Gara elkartearekin elkarlanean. Soziolinguistikaren dibulgazioan lan handia egin du *Xamarrek*, eta berak idatzirik hitz batzuk ekarri nahi genituzke abiapuntu modura. *Orekan* bere liburuaren aitzin solasean honela dio:

“Hamalau urte iragan dira [Txepetx-en *Un futuro para nuestro pasado* argitaratu zenetik] eta auziak berdintsu dirauela dirudi, gehienek ez ikusiarena egiten jarraitzen baitute: batzuek interesik ez dutelako (edo kontrako interesak dituztelako, jakina) eta beste batzuek informazio faltagatik. Azken honek nire betiko kezka areagotzen zidan: dibulgazioaren beharra”. [XAMAR: 2001: *OREKAN*, 7].

Hitz horiek idatzi zituen *Xamarrek* duela 10 urte, eta gu kezka bertsuarekin gatoz orain. Elkarrizketa honi hasiera emateko *Xamar*, **zein izan ziren soziolinguistikaren dibulgazioaren inguruko kezka sortu zizuten egoerak?**

XAMAR. Kezka hori beti izan dut. Irakasle batek egunero egiten du topo hizkuntza-borrokaren trintxerarekin. Gizartean oro har, akaso, ez duzu horrela sentituko, baina irakasle-lanean hor dago. Etengabe ikusten da hori, zauden tokian zaudela, haurrekin ala nagusiekin, Zumaiian, Baionan edo Iruñean. Funtsean nire kezkak sortzen dira ez prezeski –barkatuko naute soziolinguistek– interes berezia dudalako soziolinguistikan, ez; arazoa da soziolinguistika deitzen zaion horrek hizkuntza-borroka aztertzen duela. Eta hizkuntza-borrokak gu ukitzen gaitu, gure bizitza da, egunerokoa. Ez bakarrik irakasle bezala, baizik eta baita hiztun soil bezala. Galderak honakoak dira: zer gertatzen da? Zergatik gaude gauden tokian? Gainera, kontuan hartu behar da euskararen kontrako diskurtsoa etengabe elikatu egiten dela. Esate baterako, ikusten baduzu euskararen aholkularitzan dagoen pertsona batek euskara nekazal hizkuntza dela idazten duela, edo lehendakari batek euskara eta biolentzia lotzen dituela, esango didazu non gauden. Euskararen kontrako diskurtsoa etengabe elikatzea da. Batzuetan ahaztu egiten zaigu saltsa horren barnean gaudela baina hori neutralizatu egin behar da.

Hizkuntza-borrokak gu ukitzen gaitu, gure bizitza da, egunerokoa. Ez bakarrik irakasle bezala, baizik eta baita hiztun soil bezala.

Euskararen kontrako diskurtsoa etengabe elikatzea da. Batzuetan ahaztu egiten zaigu saltsa horren barnean gaudela baina hori neutralizatu egin behar da.

Geure historia zein izan den jabetzea alde batetik; bestetik, gure hizkuntzak gibelean zein mundu-ikuskeraren duen ezagutzea, nahiz eta jakin ikuskera hori jada galdua dela.

BELÉN URANGA. Eta neutralizatzeko lan horretan, nola egin beharko genuke gizartea erakartzeko ezagutzara, edota, alderantziz, soziolinguistika-ezagutza zabaltzeko?

XAMAR. Gauza da hizkuntza-komunitatearen zentzua elikatu egin behar dugula. Hau behin eta berriro ateratzen den gaia da. Eta hizkuntza-komunitatearen elikatzea, ene ustez, herria ezagutzetik hasten da. Geure historia zein izan den jabetzea alde batetik; bestetik, gure hizkuntzak gibelean zein mundu-ikuskeraren duen ezagutzea, nahiz eta jakin ikuskera hori jada galdua dela. Nolanahi ere, kosmogonia galdu den arren, ezagutzetik heldu da gaurdaino hizkuntza-komunitate baten parte zarelako sentimendua, eta aurrera egiteko ezinbestekoa da historia ezagutzea. Izan ere, demostratuta dago gure herrian zabandu den historia kanpokoek idatzirikoa dela, kanpokoek eraikitako topikoz osatutakoa: herri basatia dela, sekular konkistatu gabea, isolatua bizi izan dena, hizkuntza isolatua duen herri isolatua, komunikatzeko pixka bat motz dena, alegia, eta ezin izan dena gaurkotu, euskara berdina atzerapena, erdarak berdina modernitatea dikotomia sortuz.

B. U. Esandakoari lotura eginez, bide ematen didazu hurrengo gaia planteatzeko. Zuzenean entzuteko aukera izan dizugunoi deigarria egin zaigu zer-nolako garrantzia ematen diozun euskarak berak dituen natura- eta mundu-ikuskeraren zabaltzeari. Zure ikuspegitik, ikuskera horiek islatzeko baliagarriak diren heinean, zein izan daitezke euskararen ezaugarri aipagarrienak?

X. Hain da begi-bistakoa hori ikusi ere ez dugula egiten! Bizpahiru adibide jarriko dizkizut. Esan dugu mundu-ikuskeraren hori desagertuta dagoela, baina hor dago, hizkuntzan. Adibidez, Iruñean, inguru erdaldun batean sortzen den kezka bat bada haurrak euskarara motibatzearena. Haur horiek ez dute euskararekiko motibaziorik, haien txinera bezain arrotza da; izatekotan, gurasoek dute motibazioa, haiek eraman baitituzte ikastoletara. Beraz, erakuts diezaiegun hizkuntza “arraro” hori, bizi diren paisaiaren parte dela, ez dela hain arrotza. Horretarako, adibidez, erakutsi diezaiegun non bizi diren: “Zer auzotan bizi zarete?” Iruñeko nire ikasleei egiten nien galderari, erantzunak holakoak ziren: “Arrosadian! Ni Mendabaldean! Ba ni Ermitagañan! Etxabakoitzen ni!...” Ondoren aztertzen genuen auzo izenek zer esan nahi duten, euskaraz daudela ohartarazteko. Eta esaten nien: “–Hau guztia erdaldunek ezin dute ulertu” “–Atx!, egia da!” Hori da hizkuntzaren inguruan motibatzea. Kontuan izan behar da gainera, oso zaila dela motibapena hizkuntza hori gizartean ez ezinbestekoa baldin bada.

Bigarren adibide bat ere jarriko dut, Gipuzkoako herri batean gertatu zitzaidana. Ikastaro batean esan nuen euskarak erritoetan ikusmolde zaharrak atxiki dituela. Harritura geratzen ziren irakasle ziren ikasle batzuk esaten nienean, adibidez, Eguberriak “egun berriekin” lotzen direla; ez ziren ordura arte konturatu. Erdal kulturetan “natividad” ospatzen da eta guk “egun berriak” ospatzen ditugu. Antropologoek esaten dute hori solstizioaren inguruko gaia dela. Ba bai, guk bagenekien hori, euskarari baitago.

Bi adibide besterik ez dira, baina euskarak horrelako ugari ditu, eta horrek erakusten du gure kulturak izan duen kosmogonia. Hori guztia ulertzeko euskara behar da.

B. U. Esango nuke azalpen horiek guztiak helburu dutela euskal komunitatea sendotzea. Esate baterako, nola azal dakioke euskararen ikuskera hori, adibidez, etxetik euskaldun ez den bati?

x. Nik uste dut arazoa sakonagoa dela. Nola hurbildu euskararen mundura betidanik euskaradunak direnak? Uste dut hortik hasi behar garela. Komunitatea trinkotzen dugun heinean erakarriko dugu norbait. Hitzun den jendea bere kultura jantzita egotetik erakarriko dugu norbait, hor zerbait badagoela erakusten badugu. Arazoa da oso gutxi ezagutzen dela. Nik sorpresarik handienak hartu ditut, esate baterako, kultur tradizionalako ikastaro bat eman behar izan nuenean Azpeitian. Nire baitan pentsatzen nuen, nora noa ni Azpeitira euskal kultura erakustera? Zer erakutsiko dut nik han? Irakasle talde handi xamar bat bazen han, adineko jendea, baserri giroko seme-alabak batzuk, euskaldunak denak. Ohartu nintzen inork ez zituela ezagutzen nik aipatzen nituenak, adibidez, erri-toen alorrean. Harrigarria egin zitzaidan. Gero, adiskidantza egin nuen haietako batzuekin eta honakoa kontatzen zidaten: “-Badakizu? gure amak ezagutzen zuen ikastaroan ikusten genituen gai guztiak!”. Kontua da euskara atxikirik dagoen lekuetan ere euskal kulturaren transmisioa eten egin zela. Herri menderatu batean kultura “baserritarra” da eta abar. Baina hau gure kultura da, eta ezagutu ondoren ulertu egin behar da. Transmisio hori moztu egin da eta berpiztu behar dugu nondik gatozen ezagutzeko eta, bidenabar, hizkuntzarekiko motibazioa elikatzeke.

B. U. Bai, euskara atxikirik izan arren, kultura-transmisioa galdu izanaren kontzientzia bada gure inguruan. Transmisiorekin jarraituz, hizkuntzaren transmisioan zeregin garrantzizkoa duen beste eragile-taldearekin jarrai dezakegu. Hitz egin dezagun pixka bat irakasleen paperaz. Nola motibatu beharko genuke irakaslea transmisio horretan duen garrantziaz jabetzeko?

Komunitatea trinkotzen dugun heinean erakarriko dugu norbait. Hitzun den jendea bere kultura jantzita egotetik erakarriko dugu norbait, hor zerbait badagoela erakusten badugu.

Kontua da euskara atxikirik dagoen lekuetan ere euskal kulturaren transmisioa eten egin zela.

Transmisio hori moztu egin da eta berpiztu behar dugu nondik gatozen ezagutzeko eta, bidenabar, hizkuntzarekiko motibazioa elikatzeko.

x. Galdera beste bat da. Nola motibatu gizartea. Irakasleak gizartearen isla dira. Eta gainera, irakaslea umezurtz dago absolutuki; umeen artean baina umezurtz. Eta hori gertatzen da ez dagoelako behar bezalako formaziorik. Ez dago gure kultura modu aske batean erakusteko modurik. Ikastarotxo bat hemen eta han egiten da baina, funtsean, irakasleek zer dagoen ez dakite. Gainera, euskararen aldeko politikaren falta ere bada. Hemen indarrean dagoen politika erdaren aldekoa da. Eta orain heldu zaigu ingelesaren saltsa eta ikusiko duzue zer dibertigarria izango den. Adibidez, gogora dezagun British ingeles eredu goiztiarra promozionatzen dutenak, batez ere, PP Galizian eta UPN Nafarroan direla. Datu horrek erakusten du zer-nolako saltsatan sartzen ari garen. Eta hemen eztabaida falta handia dago non gauden jakiteko. Hala ere, hemen hizkuntza-politika alorrean zerbait egin bada irakaskuntzan izan da. Baina irakaskuntza, *Txepetxek* ongi erakutsi zuen bezala, hiru ontzietatik bakarra da, erdikoa, ezagutza garatzen duena. Motibapena ez da lantzen berezkozat jotzen delako. Era erabilera gizarte alorrekoa da, alegia, politikaren alorrekoa –nahi ala ez–, eta hor aipatu dugu jadanik zer nolako hizkuntza politika dago Euskal Herri guztian.

B . U . Utzidazu irakaslearen gaiari beste puntu bat eransten. Izan ere, arazoak arazo, eta materialak eta formazioa lantzen diren bitartean, nola motibatu beharko genuke irakaslea irakaste-ikaste prozesua plazeraz egin dadin? Irakasleek -eta gizarteak- lan hori baloratzeko eta plazeraz bizi dadin lortzeko?

x. Nik uste dut irakasle den orok badakiela zerbait transmititzekotan berak gaia sentitu egin behar duela. Hori horrela da. Ni, adibidez, matematika-irakasle aski eskasa nintzen, aitor dezadan, eta profesionalki gauzak ondo egiten nituelakoan nago: metodo eta liburu ber-berak, programazioa ere, ariketak... Ondoko lankidearen modukoa, baina hark arrakasta zuen eta nik gutxi. Berak erakusten zuen gaia sentitzen zuen, gustukoa zuen, nik oso gutxi. Irakaskuntzaren arrakastaren gako handi bat irakasleek gaiarekiko sentitzen dutena erakustean datza; berdin matematika izan, nola geologia izan. Hori nola lortzen den? Ez da erraza, baina irakaslearen profesionaltasuna inportantea da. Dena den, gure hizkuntza eta kulturarekiko sentitzea askoz errazagoa da formazioa eta ezagutza baldin badago eta, ondoren, sentitzen duzun hori transmititza

B . U . Alda dezagun momentuz gaiez. Zuk idatziriko *OREKAN* liburua munduko bilakaeratik abiatzen da, ondoren gizakiaren garapenez aritzen da eta azkenik euskararen gaiari heltzen zaio. Zein da antolaketa horren

arrazoia? Norbaitek esan lezake atzekoz aurrera idatziriko lana dela!

x. *Orekan* liburua nahiko porrota izan dela esango nuke, ez baitu bete hasieran zituen helburuak. Duela hogeit bat urte Kataluniara joan ginen, eta han ikusi genuen orduko COUn bazegoela hizkuntza-borroka aztertzen zuen irakasgai bat. Gazteei azaltzen zitzairen zer-nolako arazoak zeuden hizkuntzaren gaiarekin, elebitasuna zer den, diglosia zer den, eta abar. Eta, bidenabar esan dezadan, erreferentea *Txepetx* zen. Hori zen duela hogeit urteko COUko testu liburu batean, Katalunian. Hor ikusi nuen begi-bistakoa zena. Alegia, hemen Axular eta gainerako gaiak ikasten direla, oso interesgarriak, jakina. Baina pentsatu nuen ez ote genuen gazteei azaldu behar zergatik dituzten arazoak euskaraz egiteko, kontuan izanda gainera horrek bizitzan duen eragina. Hori izan zen asmoa: liburu atsegin bat egitea irakasleen eskutan uzteko eta soziolinguistikaren interes berezirik ez izan arren, gazteak gai horretan janztea, arazo horrek bizitzan eragina duelako, bai hiztun gisa eta baita irakasle gisa ere. Kontatu dezagun beraz historia hori, baina ez soziolinguistika kontatzeko, baizik eta bizitzaren historia azaltzeko. Eta hizkuntzak bizitzaren hedapen naturalak direla ere kontatu behar da, eta hor oreka behar dela. Batzuetan hizkuntza hautu hutsa dela esaten da, baina niri ez zidaten galdetu ea espainola ikasi nahi nuen. Edota euskaratik zuzenean ingelesera joan nahi dudana. Erakutsi beharra zegoen era natural batean ginela euskaldun orain arte, pixka bat hizkuntza-ekologiaren ideia horretan sartuta. Azken finean, liburuaren bigarren partea *Txepetx*en teoriaren sozializazio modu bat izan zen.

B. U. *Txepetxi* erreferentzia egin diozula baliatuz, esango genuke haren hainbat ideia zabaltzea lortu dela, baina iruditzen zait hizkuntzen inguruko aurreiritzietan, aldiz, ez dugula asko aurreratuta: hizkuntza handiak, txikiak, modernoak, zaharkituak...

x. Ez, egiten dugun guztia frankotiratzailearen lana da oso, ez dago sistema txertatuta. Adibidez, lehenakariak berak esan zuen euskara zaila zela. Hortxe duzu arazo bat. Kasu horretan kontua da nondik ikusten duzun. Guretzat ez da batere erraza espainola bere genero-kontu eta guzti. Lehen esan bezala bada, euskararen kontrako diskurtsoa etengabe elikatzen ari da.

B. U. Tira, egin dezagun aldaketa bat, eta gaur egungo beste gai izarrari heldu diezaiozun. Duela hogeit urte ez genuen pentsatuko zer-nolako aldaketa zetorren harreman-mailetan globalizazioaren eraginez eta teknologiaren garapenaren ondorioz. Gertakari horien arabera esango nuke dibulgazioaren esparruan egiteko moduak ere aldatu beharko

Irakaskuntzaren arrakastaren gako handi bat irakasleek gaiarekiko sentitzen dutena erakustean datza; berdin matematika izan, nola geologia izan.

Gure hizkuntza eta kulturarekiko sentitzea askoz errazagoa da formazioa eta ezagutza baldin badago eta, ondoren, sentitzen duzun hori transmititzea.

**Herri
normalizatu
batek ondo
finkatzen du -eta
hobeto
transmititzen du-
ezagutza hori;
bermatuta dago
diruz,
formazioaren
bitartez
kurrikulumean,
komunikabideen
bitartez.**

ditugula. Non ikusten duzu zuk erronka nagusia? Modu bateko liburuetatik abiatuta, non dago dibulgazioaren erronka?

x. Erronka alor guztietan dago. Irakasleen formakuntza funtsezkoa dela aipatu dugu. Herri batek bere buruaz duen ezagutza zabaltzearen esparrua estrategikoa da. Eta hemen ahal den moduan lantzen da gai hori. Herri normalizatu batek ondo finkatzen du -eta hobeto transmititzen du-ezagutza hori; berrmatuta dago diruz, formazioaren bitartez kurrikulumean, komunikabideen bitartez, eta abar. Horiek guztiek transmititzen dute herri horren irudia eta hizkuntza-komunitate horren sendotasuna eta parte izatearen plazera, nahi baldin bada. Problema da ez dugula inor, nire ustez, hori eginen duenik. Eta alorrak? ideiak ez dira falta, baina izugarritzko dirutza behar da gauzak ongi egiteko. Beraz, hori da behar dena, alegia, sosa. Adibidez, liburuak egin, egin daitezke eta egiten ditugu, baina, jendea ez da ohartzen kolorezko, alegia, erakargarri den liburu bat inprimatzeak 22.000 euroko diru-gastua duela. Euskarazko liburu asko saldu behar da dirutza hori berreskuratzeko bakarrik.

Zinema munduan dokumentalak egiteko material pedagogiko egoikiagoa egin beharko litzateke. Baina, arazo bat sortu da. Iritsi da momentua non ia ezin den Euskal Herria aipatu ere egin. Jakin nahi nuke zer esan nahi den Euskal Herria aipatzen denean: hiru? lau?, zazpi? euskal komunitatea? Ez dago jakiterik. Eta, beraz, material ofizialak nolako izan behar duten ere ez dago jakiterik. Hor dago arazoa baina ez da soziolinguistika-mailakoa, maila goragokoa baizik, Herri gisan non gauden ohartzeak badu honekin zerikusirik.

B . U . Eta bide horretatik jarraituz deigarria da aldi berean, denbora oso laburrean gazteengan gertatzen ari den erreferentzien aldaketa. Hau da, badirudi gaur egungo euskaldun gazteen erreferentziak erdal hizkuntzetan daudela, behintzat duela urte batzuk baino gehiago. Uste dut gai horren inguruan klabe batzuk aurkitu behar ditugula erreferentzietan sendoago egoteko, musika-arloan, kirolean, arlo politikoan eta abar. Nola landu beharko genituzke erreferentzia horiek?

x. Nik uste dut hor obsesio moduko zerbait dagoela. Gazteek ez dute gizartean ikusten ez dutena egingo. Guk beti pentsatzen dugu gazteek eta hurrek normalizatuko dutela euskara, heziketa tartean dela-eta. Beste hainbat gairekin gertatzen den bezala, esate baterako gizon eta emakumeen arteko berdintasun-gaiak, trafikorako heziketa eta abar. Dena heziketak konponduko duelakoan gaude. Zama handiegia da hori eskolarentzat!

Ez badago kultur mugimendu indartsu bat euskaraz, gazteak ez dira hurbilduko, edo ez dute sentituko. Gaur egun gainera Euskal Herriko

taldeek normal ikusten dute txapeldunen ligara hurbiltzea, hau da, ingelesez zuzenean kantatzera. Behin galtzaile garenez... horixe da talde batzuk egiten hasi direna. Baina, non gaude? Norekin komunikatu nahi da? Islandiarekin? Australiarrekin? Baina zure auzokoekin, zure herritarrekin ez? Has gaitezen zurekin bizi direnekin; Jon Sarasuak behin eta berriz aipatzen duen *irekidura* eta *jarraiduraren* kontua da. Nik berari esaten nion *irekidura* eta *jarraiduraren* gaia ez dela kontu berria. Alderantziz, herri honen iraupenaren gako sekretua izan bada, hori dela. Beti egon gara aldatzen, beti egon gara irekiak, beti egon gara Europako pasabide garrantzitsuan, beti egokitu gatazka zetorrenari... eta, segur aski, horri esker iraun dugu, inork ez bezala.

Esan bezala, mugimendua ikusten badute, gazteek ere segituko diote, gainera euskal kultur munduak aukera gehiago eskainiko die nabarmentzeko, ingeles munduak baino. *Ez dok hamairuk* 60ean egin zuena hori izan zen. Benito Lertxundik lehengo batean Durangon aipatzen zuen ez jakin batzuk zirela, inoxente batzuk. Pentsa zer-nolako komunikazioa zegoen 60ko hamarkadan gizartean, eta orduan Bob Dylan eta horiek euskaratuz aritu ziren. Bada, bat-batean tradizio bat bazegoela deskubritu zuten eta tradizio horrek ez zuela gauza berriak egitea oztopatzen. Eta talde hori izan zen hurrengo gazteendako eredu. Garai hartan eztabaida oso handia egon zen, esate baterako, gitarra espainolarekin. Tradizioaren izenean euskal musika ezin zela gitarra espainolarekin egin esaten zuten batzuek, eta ingelesez bai. Eta, harrigarriki, eztabaida horiek behin eta berriz agertzen dira. Esate baterako, duela gutxi gazte batek galdetzen zuen ea euskaldun izateko txapela eraman behar ote zen. Non erabiltzen da ba gaur egun txapela Olentzero egunez izan ezik? Ulertu behar da esate baterako Mikel Laboak egiten zuena. "O Peio Peio" tradiziozko kanta da baina gero *lekeitioak* egiten zituen. Batak ez baitu bestea kentzen. Eta hortik eredu oso indartsuak etorri ziren hurrengo gazteriantzat. Hurrengoek sortu zituzten rocka eta punka eta ez dakit zenbat musika-estilo gehiago. Gaur egun badirudi ingelesez kantatzen duena hauslea dela, iraultzailea, baina, nire ustez, hori haizearen alde ibiltzea da, ez prezeski oso iraultzaile.

B. U. Hori lotzen da hor zehar eta interneten bolo-bolo zabaltzen ari den ideari, hau da, beste *Ez dok Hamairu* baten beharrean ez ote gauden. Baina amaitzen joateko, esandakoari beste gai hau lotu nahi nioke. Egia da egoera zailean dagoela euskara baina beste ikuspegi batetik hartuta harrigarria ere bada nola eutsi dion komunitate honek hizkuntzari. Zein da zure ustez euste horren arrazoa?

Ez badago kultur mugimendu indartsu bat euskaraz, gazteak ez dira hurbilduko, edo ez dute sentituko.

Beti egon gara aldatzen, beti egon gara irekiak, beti egon gara Europako pasabide garrantzitsuan, beti egokitu gatazka zetorrenari... eta, segur aski, horri esker iraun dugu, inork ez bezala.

**Gaur egun
badirudi
ingelesez
kantatzen duena
hauslea dela,
iraultzailea,
baina, nire ustez,
hori haizearen
alde ibiltzea da,
ez prezeski oso
iraultzaile.**

**Herri honen
definizioa
hizkuntza da eta
uste dut horrek
hogeita batgarren
mendera iristen
lagundu digula.**

x. Uste dut Koldo Izagirrek aipatzen zuela lehengo egun batean. Gurea bezalako hizkuntza egoeratan boteretik beti aipatzen da hizkuntza ez dela identitatearen oinarria. Hau da, izan zaitezke *vascoa* euskaraz jakin gabe, baina espainola ezin da izan espainola jakin gabe, ezta italiarra italiarra jakin gabe edo portugesa portugesa jakin gabe, baina *vascoa* bai, baita aldaera desberdinetan ere: *vascoa* eta *basque*, jakina. Alegia, identitateari erasotzen diote, eta hor arazo larri bat aurkitzen dugu, zeren kasualki gure herriak hizkuntzaren baitan definitzen baitu bere burua. Gu gara euskararen herria, gu gara euskararen jendea. Herri honek oso garbi izan du hau orain arte. Eta hori garbi baldin baduzu, datozela erromatarrak, datozela arabeak, datozela hauek eta besteak, baina guk jarraituko dugu hor, garbi baldin badugu hori. Kasualki, gure buruaren definizioa hizkuntzan oinarritzen da. Gaur egun aipatzen diren kontzeptu horiek, *vascoa* izatearena eta horrelakoak, ez ditut ulertzen, ez dira nire kontzeptuak, gure kulturatik kanpokoak dira. Herri honen definizioa hizkuntza da eta uste dut horrek hogeita batgarren mendera iristen lagundu digula. Orain arte oso begi bistakoa izan da, oinarritzkoa. Bestela ez da ulertzen. ●

OHARRA

1. Elkarrizketa hau 2011ko otsailaren 18an Soziolinguistika Klusterrak antolatutako IV Euskal Soziolinguistika Jardunaldian egin zen. Belen Uranga Soziolinguistika Klusterreko teknikariak gidatu zuen elkarrizketa. Jardunaldi horretako egitaraua eta gainerako materiala helbide honetan dago ikusgai: <http://www.soziolinguistika.org/jardunaldia/2011>. Zehazki, elkarrizketa honen bideoa ondorengo helbidean ikus daiteke: <http://www.soziolinguistika.org/jardunaldia/2011/bideoak>